


Aldaketak Matia kalean

Urtebete da jada Matia kalea itxuraldatu zuteenetik. Hala ere, ingurua zaharberritzeko lanak ez daude zeharo amaituta. Hemendik gutxira, Errotatxo kalea eraldatu dute eta zirkulazioa arintzeko aldaketak egingo dute Matia kalearen amaieran.

Matia kaleko obrak 2002ko udaberrian hasi ziren, eta lanen ondorioz, zenbait hilabetez kalea itxita egon zen. Funtsean, espaloia zabaldu eta errepidea estutu zuten; gaur egun auto bakar batentzako tokia baino ez dago. Oinezkoek espaloitik eroso ibiltzeko nahikoa leku izatea eta, batik bat, autoak bigarren ilara uzteko aukerarik ez izatea ziren obren helburuak. Horrez gain, TAO jarri zuten. Dena dela, Errotatxo kalea zaharberritzea eta Matia kaleko zirkulazioa arintzea ere aurreikusita zegoen zaharbe-



Eli Gorostegi

rritze egitasmoan. Oraindik ez da ez bata ez bestea egin. Udal teknikariek jakinarazi digutenez, bi lanoi 2004ko hasieran ekingo diete.

Bide zuzena

Antiguatar asko Errotatxo kaletxo zaharkatuta joan ohi dira Matiatik. Zumalakarregi hiribidera. Gaur egun, oinezkoek Matiatik Errotatxora joateko eskailera batzuk jaitsi behar dituzte, eta ondoren, Errotatxotik Zumalakarregira

Zirkulazioa arindu nahi du Udalak

joateko aldapatxoa igo behar dute. Udalaren asmoa Matia eta Zumalakarregi artean bide zuzena egitea da.

Benta Berrira Zumalakarregitik



Bestetik, zirkulazioa arintzeko, aldaketa egin nahi du Udalak Matia kale amaieran. Gaur egun, autoek, Matia kale bukaerara iristen direnean, bi aukera dituzte: eskubira jo, osasun etxerantz, edo zuzen jarraitu Benta Berrirantz, Karmelo Etxegarai kaletik. Aldaketa burutu ostean, soilik eskubira egiteko aukera egongo da. Ez da egongo Matia kaletik Benta Berrira zuzenean joateko aukerarik izango. Benta Berrira Zumalakarregi hiribidetik joan beharko dute.

2004ko udaberrian, lanak kiroldegian

Urriaz auzoko kiroldegiko hainbat erabiltzaileek gutuna helarazi zioten Kiroletako Udal Patronatuari. Gimnasia joan ohi diren lagunen ustez, bizikletak, arrauna egiteko eta hankak trebatzeko makina dauden aretoa ez da batere egokia. Leihorik ez dagoelako, eta ondorioz, izerdi usaina egoten delako. Kirol Patronatuko kudeatzaile Alfonso Benitok erabiltzaileen gutunari erantzun berri dio. Benitok gimnasioko goiko solairua —bertan dago aipatutako gela— udaberrian aldatuko dutela dio. Bestalde, Benitok *“gimnasia gero eta jende gehiago joaten dela, eta beraz, txiki geratu dela”* ere aitortu du, eta makina berriak jarriko dituztela adierazi du.

Txirristarik gabe

Udal langileek Juan Karlos Gerra kaleko haur parkeko txirrista kendu zuten duela pare bat aste. Gogoratu behar da, parkean ibili ohi diren haurrek sinadura bilketa egin zutela udaberrian, Udalari parkean konponketak egin zitzaizkizkiz. Urteen ustez, txirristak eta zabuak ez zeuden lurtean behar bezala finkatuta. Haurrak konpondutako txirrista, edo berri bat, noiz ekarriko zain daude.



Eli Gorostegi